

GURE ENPRESAREN DIRU SARRERAK

Berri-tu enpresak diru-sarrera garrantzitsu bat dauka: guk salduko dugun arropak sortuko duen dirua.

1. ZERBITZUA

Gure enpresa bigarren eskuko arropa saltzeaz arduratuko da, bai eta bigarren eskuko materialaz sortutako arropaz. Horrenbestez, hau izango da geure oinarritzko diru sarrera. Bestalde, bezeroen txartela bat sortu dugu, zeinak beherapenak eskainiko dizkio bezeroari aldi askotan erosi ostean (adibidez, bost jantzi erostean, seigarrena doan; edo eroslearen urtebetetzean, % 50-ko beherapena) saltzeko bestelako aukerak emango ditugu, irabaziko dugun diru kantitatea handiagotuko duena:

- **1.1 PERTSONALIZAZIOA:**

Lehiakideengandik bereizten gaituen ezaugarri bat prezioa da, gure helburua ahalik eta prezio baxuenak ezartzea baita, ahalik eta jende gehiena erosteko gaitasuna izateko, baina nahiz eta gure denda merkea izan orokorrean, pertsonalizatzea zergaren bat edukiko du; ehuna eta denbora gehiago eskaini behar baitaio, arropa normalarekin konparatua. Eska ditzaketen pertsonalizazioak honako hauek izan daitezke:

1. **Koloreak:** Geure bezeroek arropa kolore jakin batean eskatzeko eskubidea izango dute, aukera infinituak eskainiz. Horrela, nahi dutenean aldatu egingo dezakete haien armairua, nahi duten arropa salgai ez egotearen beldurra eduki gabe.
2. **Neurriak:** Nahiz eta gu dendetan salduko dugun arropa neurri zehatz batzuk eduki, pertsonalizatzeko aukera izanez, haiek ere neurri zehatzak eskatzeko eskubidea edukiko dute.
3. **Diseinuak:** Pertsonalizazioak aukera asko ematen ditu; lehen aipatu dugun bezala, neurriak eta koloreak bakoitzaren nahien arabera eska daitezkeela. Baina horretaz gain, diseinu pertsonalizatuak ere eskainiko ditugu.

- **ON-LINE EROSKETA:** On-line erostean ere zergaren bat edukiko du arropa, % 5a, gutxi gorebehera. Zerga hauek erosketa 20€ edo

BERRI-TU



gutxiagokoa denean aplikatuko dira; hau da, erosketak hogeituro baina gehiago balio badu, gastu hauek ez dira aplikatuko.